



**Bizkaiko Foru  
Aldundia**

Gizartekintza Saila

**Diputación Foral  
de Bizkaia**

Departamento de Acción Social

Bizkalko Foru Aldundiaren martxoaren 30eko 58/1999 FORU DEKRETUA, 1999. urtean adinekoen babes-egoitzetan aldi baterako egonaldiak egiteko banakako ekonomi laguntzearako deialdi publikoa onetsi zuen bizkaiko foru aldundiaren abenduaren 29ko 131/1998 foru dekretua aldarazten duena.

## ZIOEN AZALPENA

Bizkaiko Foru Aldundiak, dagozkion eskumenen eremuan eta Gizartekintza Sailaren bitartez, dirulaguntzen eta banakako ekonomi laguntzen emakida arautzen du berariazko dekretuen bidez.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Ekonomi Araubideari buruzko urriaren 14ko 10/97 foru arauak 96. artikuluko h atalean adierazten du dekretuen oinarri arautzaileek zehaztu beharko dutela kredituaren muga eta, halaber, zein aurrekontu-partidari esleituko zaion, beronetatik laguntzaren ordainketa tramitatu beharko delarik.

Hori dela bide eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapoen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 foru arauko 17. eta 64.3 artikuluek emandako ahalmenak erabiliz, Gizartekintza saileko foru diputatuak proposatu eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 1999ko martxoaren 30eko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe.

## XEDATU DUT:

### **Artikulu bakarra**

Foru dekretu honen bitartez 1999. urtean adinekoen babesegoitzetan egonaldiak egileko banakako ekonomi laguntzearako deialdi publikoa arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 131/1998 foru dekretuko 10. artikulua aldarazten da, aurrerantzean honela idatzita geratuko delarik:

*«10. artikulua. — Aurrekontuko partida*

Foru dekretu honetan aipatzen diren banakako laguntzak Bizkaiko Lurralde Historikoaren 1999ko aurrekontuko (0303) organikoa, 310303 egitaraua, 46100 ekonomikoa delako partidaren pentsutan ordainduko dira, esleipenaren muga 30.000.000 pezetako kreditu erabilgarria izango dela.»



**Bizkaiko Foru  
Aldundia**

Gizartekintza Saila

**Diputación Foral  
de Bizkaia**

Departamento de Acción Social

Bizkalko Foru Aldundiaren martxoaren 30eko 58/1999 FORU DEKRETUA, 1999. urtean adinekoen babes-egoitzetan aldi baterako egonaldiak egiteko banakako ekonomi laguntzetarako deialdi publikoa onetsi zuen bizkaiko foru aldundiaren abenduaren 29ko 131/1998 foru dekretua aldarazten duena.

## **XEDAPEN BAKARRA**

Foru dekretu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizial», ean osorik argitara dadin egunaren biharamonean jarriko da indarrean.

Bilbon emana, 1999ko martxoaren 30ean.

Gizartekintza Saileko Foru Diputatua,  
INMACULADA LOROÑO ORMAECHEA

Ahaldun Nagusia,  
JOSU BERGARA ETXEBARRIA